



OGP-ren 3. Konpromiso Taldearen 1. Bilera: “Open eskolaren garapena”

Eguna: 2021/12/15

Ordua: 10:00

Lekua: Teams



- Nork parte hartu du bileran:



Gotzone ZALDUNBIDE (Bilboko Udala)	Beatriz ACHA (Bilboko Udala)	Garikoitz Lekuona (Tolosako Udala)
Amaia ZARRABEITIA (Elhuyar)	Arantza OTAOLEA (Herritarren ordezkaria)	Elixabete ARRIATA (Bizkaiko Foru Aldundia)
Maria PRESA (Bizkaiko Foru Aldundia)	Ana MOLINA (Mestiza)	Goizalde ANTUXUTEGI (Innobasque)
Garbiñe ARAMENDI (Parte Hartze teknikaria-GFA)	Haritz UGARTE (Administrazioaren berrikuntza eta eraldaketako zerbitziburua-GFA)	Itziar CALVO (Herritarren Partaidetzako zerbitziburua-GFA)
Mikel PAGOLA (Herritarren Partaidetzako Zuzendaria-GFA)	Elsa FUENTE (Unicef Comité País Vasco) Ezin izan du parte hartu	Kotelo (Gasteizko Udala) Ezin izan du parte hartu
Asier AMEZAGA (Komunikatik) Ezin izan du parte hartu		

o Testuingurua:

Euskadin gobernu irekian aurrera egiteko bigarren Institutuzioen arteko Plana martxan jarri da, 2021-2024 Plana hain zuzen ere. Plan honetan 5 konpromiso zehaztu dira, hiru urteko epean garatu beharrekoak, eta konpromiso bakoitzeko arduradunak izendatu dira. Gobernu irekian ditugun erronka nagusiei erantzuteko, konpromiso hauen garapena gizarte zibilarekin elkarlanean egingo da eta hiru maila instituzionalen arteko koordinazioa sustatuko da.



Bost konpromiso horietatik, hirugarren konpromisoaren lidergotza bere gain hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak, hau da, Open Eskola garatzearena. Hirugarren konpromiso horren baitan, erronka honi erantzun nahi zaio zehazki: OPEN ESKOLA-ren barruan herritarren prestakuntza eta gaikuntza erraztu eta sustatuko duten tresnak, mekanismoak eta ereduak eskaintzea. Bereziki konpromiso taldearen arreta zuzendu nahi da **bi norabidetan: arrakala digitalean**, hau da, eten digitalak eragindako arazoak eta beharrezko tresna digitalen bidez nola gainditu identifikatzen. Eta **etika publikoaren arloan** kontzientziatutako herritarrak nola lortu identifikatzen.

3. konpromiso taldearen lehen bilera izan da hau, eta bertan helburu hauek eta egitura hau landu dira:

Saioaren helburuak

OGP-ren 3. konpromiso-taldea osatzea.

Konpromiso fitxan jasotako erronka eta helburuak berrikusi eta guztien artean osatzea.

Saioan landutako edukiak

1. Ongietorria eta aurkezpena
2. OGP konpromisoaren aurkezpena eta GEI-rekin (Gipuzkoako Eskola Irekia) lotura
3. Herritarron etika eta arrakala digitala
4. Hausnarketarako tarteak

1. Ongietorria eta aurkezpena

Mikel Pagolak, Herritarren Partaidetzako Zuzendari Nagusiak, ongi etorria eman die bertaratutako parte hartzaile guztiei. Ondoren, aurkezpen erronda bat egin dugu bakoitzak bere burua aurkezteko: izena, erakunderen batetik parte hartzen den eta konpromisoan parte hartzeko interesa zein izan den azaldu dugu.

2. OGP konpromisoaren aurkezpena eta GEI-rekin lotura

Mikel Pagolak, Herritarren Partaidetzako Zuzendari Nagusiak, OGP-ko bigarren plan honen 3.

Konpromisoaren azalpena egin du, eta GEI-rekin duen lotura azaldu du.

Konpromiso talde honen helburua ez da Open Eskola eredua zabaltzea, baizik eta haren prestakuntza-edukietan sakontzea, fokua honako hauetan jarrita:

- Herritarren etika
- Arrakala digitala
- Pandemia osteko beste eremu emergente batzuk

Tresna/eduki horiek Open Eskolaren printzipioei jarraitu beharko diete: transferigarria, moldagarria, sinplea...

KONPROMISOAREN ERRONKA

3. KONPROMISOA OGP 2021 - 2024

OPEN ESKOLAREN barruan, herritarren prestakuntza eta gaikuntza bultzatzen eta sustatzen duten tresnak, mekanismoak eta ereduak eskaintzea.

- 3Kren helburua ez da Open Eskola eredua zabaltzea, baizik eta haren prestakuntza-edukietan sakontzea, fokua honako hauetan jarrita:
 - Herritarren etika
 - Arrakala digitala
 - Pandemia osteko beste eremu emergente batzuk
- Tresna/eduki horiek Open Eskolaren printzipioei jarraitu beharko diete: transferigarria, moldagarria, sinplea...



Komunitate aktiboa, irekia eta parte hartzailea lortzea, Gobernantza kolaboratiboa garatzeko helburuarekin erantzukidetasuna onartzeko prest dagoena

3. Herritarron etika eta arrakala digitala

Haritz Ugartek, Administrazioaren berrikuntza eta eraldaketarako zerbitzuburuak arreta jarri nahi zaien bi gai hauek kokatu dizkigu: Herritarron etika publikoa eta arrakala digitala.

ARRAKALA DIGITALA

- Herritarrekin harreman digitalak: aukera → beharra
- Arrakalak sortu dira maila ezberdinetan:
 - Ezagutza
 - Komunikazioa
 - Teknologia
 - Arrakala ekonomikoa
 - Arrakala kulturalak
 - Adina
 - Sexua
 - ...
- Helburua: identifikatu zein arlotan landu behar dugun herritarren ahalduntzea, erakundeekin harreman digitalak hobetzeko (zerbitzuak hartzeko orduan nahiz politika publikoetan parte hartzeko orduan)

ÉTICA PÚBLICA

- La Ética como elemento central en el nuevo modelo de Gobernanza y de Gobierno Abierto
- Sistema Vasco de Integridad (Plan OGP Euskadi 2018-2020)
- Objetivo: implicar a la ciudadanía en la Ética Pública

“Administrazioa auresuposatzen ari da pertsona guztiek baliabide teknikoak eta trebetasunak dituztela interesatzen zaien guztia modu telematikoan kudeatzeko. Hori horrela ez denez, beste bitarteko batzuk jarri behar dira, aurrez aurreko edo telefono bidezko arreta-zentroak, sistema berrira ohitu arte; baina inoiz ez bakarra”

“Eten digitalari bi ikuspegitatik hel dakioke: Administrazio publikoen ikuspegia eta herritarren ikuspegia. Administrazio publikoen ikuspegitik, jakitun izan behar dugu langile batzuek ez dutela behar besteko gaitasunik herritar kualifikatuenean artean egon daitezkeen eskaera digitalei erantzuteko. Herritarren ikuspegitik, beharrezkoa litzateke arrakala digitala terminoa xehatzea eta egon daitezkeen eten digital handiak identifikatzea (adina, baliabideak, hizkuntza, etab.), eten horietara egokitutako neurriak adosteko.”

“Eten digitalari dagokionez, Arartekoak irailan aurkeztutako lana lagungarri izan daiteke.”

“Lortu nahi den helburuarekin bat egiteko, perspektiba herritarrena izan beharko litzatekela iruditzen zait, alegia bai arrakala digitala lantzeko zein etika publikoa lantzeko, urrutien dauden kolektiboekin lanean ari diren eragileekin lan egitea interesgarria litzateke. Bestela arriskua da ezagutzen eta sentitzen ez dugunetik aritzea eta irtenbideak edo estrategiak ez hain zuzenak izatea. ”

“Etorkizuna Eraikizen Kongresuan jorratutako ponentzia batean gai horri heldu zaio.”

"Nire ustez KZGUNeen mundua hemen sartu beharko litzateke. Kontuan hartuz beraien hasierako egitekoa, ibilbidea eta abar "

2. Eta herritarren etika publikoa?

“Administrazio publikotik kanpainak sortuz, herritarrei gogoraraziz eskubideak eta betebeharrak ditugula eta gizalegezko jokabideak denoi egiten digula mesede gizarte gisa..”

“Esango nuke COVID garaian, herritarren eta erakundeen arteko konfiantza falta baino, herritarren arteko konfiantza falta ikusi / sentitu dugula. Hori nola aurre egin elkarbizitzan eraginik izan ez dezan? Agian, interesgarria litzateke AZALERATZEA edo SARITZEA / AITORTZEA herritarrek herritarrek laguntzeko / babesteko sortu dituzten ekimenak. Asko gazteek martxan jarritakoak izan dira gainera. Eta gehienak UDAL MAILAN eman direnak, asko erakundeekin elkarlanean (erakundeek babestu dituzten herri-ekimenak). Horiek ezaqutzea eta ezaqutaraztea interesgarria litzateke?”

5. Partekatzeko tartea

Proposatutako galderen inguruan partekatzeko tartea ireki denean, ideia hauek jaso dira:

Arrakala digitala

- Erronka: Haritzek aurkezpenean aipatzen zituen arrakala horiek guztiak ez ditzagun eremu digitalera eraman.
- Interesgarria litzateke eten digital hori prozesuetan identifikatzen lagunduko digun tresna edo zerbait sortzea.
- Lehenik eta behin, eten digitala Administrazio publikoaren barruan zuzendu behar da, enplegatu publikoak gaituz.
- Eten digitala oso kontzeptu zabala da. Agian, lehenik eta behin, honako hauek identifikatu beharko lirateke: adina, baliabideak, prestakuntza, hizkuntza, etab.

Etika publikoa

- Aurreko planean euskal osotasun-sistema baten gutxienekoak jorratu ziren. Zati honetan interesgarria litzateke gutxieneko batzuk lantzea, herritar bati eska dakizkiokeenak administrazioarekin harremanetan jartzen denerako, adibidez: zintzotasuna.
- Herritarren etika, edo pertsonen arteko konfiantza: garai hauetan gero eta gehiago ikusten da Administrazio publikoarekiko mesfidantza, baita herritarren artean ere. Talde horren lanetako bat izan liteke herritarren jardunbide egokiei edo esperientziei balioa ematea. Abiarazteko modu bat izan liteke, halaber, Euskadin gai horri buruzko daturik ba ote dagoen ikertzea.
- Oso erraz ikusten da administrazioak eredugarritasuna eskatzen badie herritarrei, horrek gaitzespena eragitea.
- Planteatzen den arazoa indibidualismoa sustatzen ari den mundu mailako korrante batetik dator, bakoitzak bere interesei begiratzetik, interes kolektiboa kontuan hartu beharrean.
- Administrazioak kanpainak egin ditzake herritarren eskubide eta betebeharrekin.



○ Hurrengo urratsak:

Saioarekin amaitzeko, konpromiso taldearen hurrengo urratsak azaldu dira:

- Saioan jasotako ideia eta iritziak batu eta aztertu ondoren, helburuak zehaztu eta lehenetsiko dira.
- Idazkaritza teknikorako kanpo kontratazioa martxan jarriko da.
- Guzti hori dagoenean, konpromiso taldearen hurrengo bilera deituko da.

Mila esker guztioi zuen ekarpenengatik eta parte hartzeagatik!!